

"Egunkaria" itxi izana salatuta eta Uria askatzeko eskatu du MIDA Sek

BATZAR NAGUSIA, Hizkuntza gutxietan argitaratzen diren Europako egunkarien elkarteak batzarra hasi du Donostian

SALAKETA. Inaki Uria eta Xabier Alegria berehala askatzeko eskatu dute, «haien delitu bakarra euskara sustatzea baita»

BERRIA. Beste sei egunkari sartu dira MIDASen, horien artean BERRIA, Donostiako batzarraren antolatzailea



MARTIN UGALDE KULTUR PARKEAN izan ziren atzo MIDASeko kideak, eta BERRIAREN egoitza bisitatu zuten. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

'Egunkaria'-ren itxiera salatu eta Uriaren askatasuna eskatu dute

Europar hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkarien elkarteak atzo hasi zuen Donostiako Kursaal Jauregian urteko bilkura; arratsaldeko batzar nagusian Inaki Uria askatzeko testua onartu zuten

Atzo goizean abiatu zen Donostia MIDASen, Eredu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzetan argitaratzen diren Europako Elkarrearen 3. batzar nagusia, Donostiako Kursaal Jauregian. Harrera ekitaldian BERRIA argitaratzen duen EKT enpresako lehendakari Joxean Lizarribar izan zen eta 2004ko bilkura Euskal Herriari izatea eta BERRIAK antolatzea "ohorea" dela esan zuen. *Euskaldunon Egunkaria-ren* itxieraren ondotik izan ziren langileen atxilotetak eta tortura kasuak ekarri zituen gogora: "15 hilabete igaro dira ordutik, eta oraindik ere bi lagunek, Xabier Alegria eta Inaki Uriak, espetxean jarraitzen dute". Beren delitu bakarria euskara eta euskal prentsa bultzatzea izan dela nabarmendu zuen eta berehala askatzeko eskatu.

Lizarribarrekin batera, ordezkari politikoak izan ziren ongietorriko ekitaldian: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Goenaga, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarri eta Donostiako zinegotzi Denis Itxaso (azken orduko ezusteko baten ondorioz, ezin izan baitzuen Donostiako alkate Odon Elorzak bertan izan). Patxi Goenagak hizkuntza gutxituetan aritzeak oztopo bat baino gehiago dituela esan zuen: "Nahiz eta gure lurraldean euskara gutxiengobatekulertu, euskaraz jarduteko hautua egin dugu". Zentzu horretan, hizkuntza gutxituen bermerako egunkariak "lan eskerga" egiten dituela eta Jaurlaritzak euskarazko komunikabideak laguntzen jarraituko duela azpimarratu zuen.

Joxe Joan Gonzalez Txabarrik Inaki Uriaren askatasuna eskatu hasi zuen bere agerraldia. "Europako mendealdean nekez ulertuko litzateke agintari politiko batek kazetari baten askatasuna eskatzea. Haatik, Euskal Herriko giro politiko honetan ez da hain bitxia". MIDASeko partaide diren egunkariak Euskal Herriari buruz "beren begizkustan" dutenarekin idazteko eskatu zuten.



HARRERA EKITALDIAN Jose Mari Pastor, BERRIAKO erredaktore burua, EKTren lehendakari Joxean Lizarribar, Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarri, EAEko Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Goenaga eta MIDASeko lehendakari Toni Ebner izan ziren. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Denis Itxaso, berriz, hizkuntza gutxituez mintzatu zen. Bere irudiko, mundu globalizatu honetan, hizkuntza gutxituak ondare historikoak dira, kultur aniztasunaren adierazle. Ildo horretatik, MIDASen lana eskertu eta BERRIA ere zoriondu zuen.

Azkenik, MIDASeko lehendakari Toni Ebnerrek hartu zuen hitza. *Egunkaria-ren* itxiera salatu eta Inaki Uriari "elkartasun osoa" erakutsi zion. "MIDAS ez da kasualitatez etorri Euskal Herriari, bere elkartasuna adierazteko baizik". Agentzia handiek itxieraren berri eman ez bazuten ere, MIDASeko partaideek lehen eskuko informazio iturrietarajo zutela gogoratu zuen, eta horrela Europako hizkuntza minorizatuak prentsa irakurleek itxieraren oihartzunajaso zutela.

Euskararen egoera hizpide

Atzoko goizean Euskal Herria, euskalgintza eta euskararen egoera izan ziren gai nagusie-

nak. Lehenik eta behin, Lorea Agirre kazetari eta idazleak euskalgintzaz jardun zuen. Euskarak espazio geografikoan eta hiztunen kopuruan atzera egin duen arren, pronostiko gutzien aurka, 1.000 urte geroago, irau duela azaldu ziren Europako kazetariak. Euskalgintzaren zutabe nagusiak izan zituen ahotan, hala nola, azken urteetan euskarazko komunikazio esparruan gauzatutako egitasmoak. Euskal Herriaren zatiketa administratibok eragiten dituen "kontraesanak" ere agerian utzi zituen.

BERRIAREN zuzendari Martxelo Otamendik *Egunkaria-ren* itxiera eta BERRIAREN jaiotza gogoratu zituen. *Egunkaria-ren* aurkako erasoan erakutsirik elkartasuna eskertu zion MIDASeko partaideei. Otamendik BERRIAREN sorreraren datuak azaldu zituen bere hitzaldiko azken txanpan: "*Egunkaria-ren* itxieragatik kaletan geratutako 150 langileek sortu zuten egunkari berria, eta behin osatuz gero, 5 milio euro-

ko akzio zabalkundea egin zuten. Akzio salmenta duela aste gutxi bukatu da eta 4.600.000 euro jaso ditu enpresa berriak akziotan, denetara 24.404 akziodun bilduz". Patxi Goenagak Eusko Jaurlaritzak 2001ean eginitako azterketa soziolinguistikoa utzitako datuen eta emaitzen berri eman zuen eta Behatoki zuzendari Juan Inazio Hartsuagak, berriz, Behatokiaren 2003ko txostena aurkeztu zuen.

Agerraldien ondoren, *Euskaldunon Egunkaria-ren* itxiera auzalten duen bideoa igorri zuten. Ostean, sosaldirako txanda ireki eta partaideek galdera ugari egin zituzten itxieraz eta BERRIARI buruz. *Batek Egunkaria-ren* itxieraren berri emateko ea zer gehiago egin daitekeen galdetu zuen. "Basakeria" hura Espainiako Gobernuak nolajustifikatu zuen ere galdetu zuen beste batek. Euskal Herriari emandako erantzunaz eta BERRIAK lortu zituen akziodunen eta erosleen kopuruaz ere harrituta zegoela

esan zuen beste batek. Halaber, Euskal Herriari gazteleaz argitaratzen diren medioen jarrera ere zein izan zen galdetu zuten.

BERRIA, atzo egin zen bazkide

Arratsaldean jada MIDASi buruz jardun zuten. Elkartean sartzeko eskaera egin duten bost egunkariren aurkezpena egin zuen MIDASeko idazkari Guenther Rautzek: *Grenz-Echo* (ezin izan dute *Qtorri*), *Bihari Nap16*, *Veti Segodnya*, *Modolez*, *Estonii* eta *Südtirol 24h*. Batzarraren antolazaila lanetan BERRIA aritu bada ere, atzo arratsaldean egin zen ere "ofizialki" MIDASeko bazkide, beste bostekin batera. Gero, batzar nagusia egin zuten. Bertan Inaki Uriak askatzeko eskatzen duen testua onartu zuten elkarteko bazkide diren komunikabideak. Idatzi horren eduki zehatzaren berri gaur emango dute. Horrez gain, elkartearen diru kontuak aztertu eta aurrekontuak onartu zituzten.

Gaur atek zabalik izango dira Kursaalean

Gaurko jardunaldietan atek zabalik izango dira Kursaalean, nahi duen orokjoan ahalizateko. Goizean MIDASeko egunkariaren egitasmo interesgarrienen berri emango da. Aurkeztuko diren egitasmoen artean hona-

koak izango dira, besteak beste: Kataluniako Comit kazetaritza taldea, *El Periódico de Catalunya*-ren itzulpen sistema; Irlandako *Lá* egunkari berria eta *Jakonstads Tidning-en* ikusmen urritasuna dutenentzako egunkari

zerbitzua. Gauean, berriz, *Otto von Habsburg Prize* eta MIDASeko kazetaritza sariak banatuko dira eta ondoren afaria izango da. Alderdi politikoak, sindikatuak eta euskalgintzako eragileak gonbidatuak dira.

«Oso hunkigarria izan da zuzenean itxieraren lekukotasunak entzutea»

A.S.-DONOSTIA

ToniEbnerMIDASekolehendakaria da. *Egunkaria*-ren itxiera gertatu zenez, zuzendaritzak hurrengo batzar orokorra Euskal Herrian egin behar zela garbi zuela adierazi zuen. Atzo goizeko saioa oso gustukoa izan zuen. **Zer iritzi duzu gaurko [atzoko] Batzarreangainean?**

Ikaragarria da *Egunkaria* nola itxi zuten eta zuzendaritza atxilotzea. Hemen, Martxelo Otamendi entzuteko aukera izan dugu. Drain badakigu Otamendik zergatik ezin duen Espainiatikatera, Espainiako Gobernuari ez zaiolako komeni. Era berean, oso hunkigarria izan da zuzenean gertatutako guztiaren berri izatea eta beldurgarria da XXI. mendean Guardia Zibilak giza eskubideak nola urratzen dituen ikustea.

Zer deritzozu euskararen egoerari buruz?

Gaur oso informazio sakonajaso dugu euskararen egoeraren gainean. Latina, munduko hizkuntza nagusia izan zena, desagertu egin zen. Baina, euskal kulturen eta hizkuntzan konfiantza dagoela ikusi dugu, eta, ondorioz, euskarak milurtetan

barrena iraun du. Orain arte iraun badu, etorkizunean ere iraun dezakeen seinale izan daiteke.

Zein da MIDASen azken urteetako balantzea?

Euskal Herrian gertaturikoa MIDASen ardatz izan da. Hori salatzea izan da gure lana. Cure irakurleei horren berri emateaz gain, gure estatuetako agentziak sensibilizatzen saiatu gara, Espainian adierazpen askatasunaren eta giza eskubideen aurka egiten dena saiatu zezaten. Europako Legebiltzarrean gertatutakoa salatzeke mozioa ere aurkeztu genuen. Oraindik, ordea, erantzunaren zain gaude.

Mozioak aurrera jarraituko ote duen itxaropenik ba al duzue?

MIDAS erakundeak ezin du euskal prentsaren eta kulturaren aurka egindako erasoetan atzera egin. Baina, salatu dezake, esaterako, Europako Legebiltzarrean. Gainera, Europan badira, Espainiaz gain, gutxiengoaren aurka neurriak hartzen dituzten estatuak. Euskal Herrian gertaturikoa zabaltzearekin gainerakoentzat abisua da. Ez dezatela pentsa nahi duten guztia egin ahal dutenik.

Zer nolako harremanak dituzue Eu-

ropako gainontzeko erakundeekin? Orokorrean erakundeek gutxiengoari jaramon gehiago egin behar dietela uste dugu. Europako Batzordean eta Legebiltzarrean, gutxiengoak diren hizkuntzetako egunkarietan propaganda jartzeko eskatu behar dugu. Aide batetik, ekonomikoki onuragarria da. Bestetik, irakurleek hori ikustea garrantzitsua da. Gainera, lehen 40 milioi ziren Europako hizkuntzagutxituetan hitz egiten zutenak, orain, berriaz, 60 milioi. Horregatik, egun ordezkaritza zabalagoa da. **Zer egitasmo ditu elkarteak etorkizunean?**

Horren gainean Batzar Nagusian hitz egingo dugu. Funtsean, gutxiengoek dituzten arazoen berri emango diogu elkarri eta erakundeen sostengua lortzeko bideak jorratuko dira. Informazio plataforma bat ere zabaldu nahi dugu elkarren arteko harremana errazteko. Era berean, gure artean ulertzeko itzulpen zerbitzua aztertzen ari gara.

Zer suposatzen du MIDASen kide gehiago izateak?

Gero eta kide gehiago izan, informazioa jende gehiagorengana iristen da. Gainera, indar gehiago izango dugu.

Galderak

1. Zeintzuk dira zuen egunkariaren eta hizkuntza komunitatearen ezaugarriak?
2. Zeintzuk dira MIDASen sartzeko arrazoiak?
3. Zer iritzi duzu MIDASi buruz?



JOXEAN LIZARRIBAR
(EKTko lehendakaria)

1.2. *Egunkaria MIDASen* zegoen, eta

orain BERRiAk hartu du lekukoa. MIDASen egotea garrantzitsua da azken garai hauetan gertatzen ari dena ikusita: *Egunkaria* itxi zutenean MIDAS izan zen mugitu zen bakarra. Bestetik, egun eraikitzen ari garen European horrelako erakunde bat egon behar du eta BERRiAk, noski, bertan izan behar du. Hala-ber, gutxiengoan gauden hizkuntzen artean elkarren berri jakitea ere beharrezkoa da. Guretzat bozgorailu bat da.

3. Europeanen zabalkundearen ondorioz, jada 60 milioi pertsonak hitz egiten ditugu hizkuntza gutxituak. Asko gara, beraz, European presioa egiteko aukera dugu.



ILJA NIKISOROV
(Estoniako errusierazko 'Modolez Estonii' egunkariko zuzendaria)

1. Astero sei ale argitaratzen ditugu eta 8.000 eta 11.000 aleren artean saltzen dugu. Horietatik, 5.500 harpidedunak dira eta gainontzekoak dendetan saltzen ditugu. 1.300.000 lagun bizi dira Estonian; horietatik 400.000 dira errusiaraz hitz egiten dutenak. Estonian errusiera ez da ofiziala. *Egunkaria* estoniar guztientzat idazten da, beti ere, errusiarren ikuspegitik.

2. Estonia Europako Batasunaren kide bihurtu da. Horregatik, gure egunkaria European garatzeko guneak topatu behar ditugu. Gainera, hizkuntza gutxituak dituzten egunkariekin harremana izan ahalko dugu.

3. MIDAS erakunde serioa eta garrantzitsua da, egunkarien gaineko informazioa trukatzeko oinarritzkoa. Bestalde, minoriak zaintzen ditu.



NIKALGS KABANOV
(Letoniako errusierazko 'Vesti Segodnya' egunkariko kazetaria)

1. Letoniako hizkuntza eta errusiera oso antzekoak dira, %95ean dira antzekoak. Desberdintasun nagusia hizkuntza nork hitz egiten duen eta

ama hizkuntza den edo ez da. 2,4 milioi biztanle ditu Letoniak. Biztanleen %45 errusiarrez aritzen dira, gainerakoak, letonieraz.

2. European gutxiengoan dagoen jendea babestea oso garrantzitsua da. Batez ere, ofizialak ez diren hizkuntzak babesteko. Neurri horretan, errusiera eta euskara oso antzekoak dira, biak ez dira ofizialak Europako erakundeetan.

3. MIDASek European euskara edota errusiera kontutan hartzeko balio dezake.



HANS KARL PETERLINI
(Hego Tiroleko alemanierazko 'Südtirol 24H' egunkariko erredaktore burua)

1- Gure egunkaria iaz sortu zen eta 5.000-10.000 ale saltzen ditu egunero. Bere hizkuntza nagusia alemaniera da, ia-ia guztia hizkuntza horretan argitaratzen dugu. Atal batean ingeles eta italiarazko zatia sartzen dugu.

2- Halako elkarte batean egotea garrantzitsua dela ohartu gara. *FF* aldizkaria ere kaleratzen dugu, 10.000-15.000 alerekin. Astekaria da eta horregatik ezin da MIDASen sartu.

3- Funtsezkoa da gutxiengoek bat egitea. Askotan gutxiengo horiek egozentrikoak izaten gara eta ikuspuntu horretatik alde egin behar dugu. Gu gutxiengoa gara, baina pluralak. Horregatik inportantea da topaketa hauek egitea.



JOSEF KLOGER
(Errumaniako Bihar i probintziako hungarierazko 'Bihari Naplo'-ko edizio burua)

1. 30.000 egunkari saltzen ditugu egunero. Igandetan ez dugu egunkaririk izaten. 640.000 pertsona bizi dira eta 150.000k dute hungariar nazionalitatea.

2. Hizkuntza gutxituek dute arazo bera, hiztunak edota hizkuntza atzeraka doala eta horri aurre egiteko borrokatu behar dugu. Zentzu horretan, MIDASen lana ezinbestekoa da.

3. Batzarrera MIDASek zer egiten duen jakiteko etorri naiz, eta egunkarien egitasmoen berri izatera. Horregatik, ezin dut balorazio gehiegirik egin.